# Nahi ibili gurekin ?

*Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Mindara elkarteari egindako abestia (2021)*

Maialen Lujanbio

Xabier Zabala




Copyright © Xabier Zabala




Bagoaz pozik txistu joaz, gure pilota ta pala…
Jostatzera ta jokatzera, pilotalekua hartzera.
Bagatoz pozik txistua joz, gure gurpil eta baloi…
Uztaien azpira, ametsak saskira!

NAHI IBILI GUREKIN? NAHI ARI ELKARREKIN?
Neurri hau da neurea, bakoitzak du berea…
NAHI JOATEA ZUEKIN? TA ARI ELKARREKIN?
Gure ezin, gure dohai jokatzen dugu, bai!

Bagoaz pozik txistu joaz, gure soin ta gure soinu…
Dantzatzera ta gozatzera, herriko plaza hartzera.
Bagatoz pozik txistua joz, txano eta bainujantzi…
Igerilekura, gozamen putzura.

NAHI ETORRI GUREKIN? TA ARI ELKARREKIN?
Gure ezin, gure dohai jolasten dugu, bai!

NAHI IBILI GUREKIN? NAHI ARI ELKARREKIN?
Modu hau da neurea, bakoitzak du berea (ta)…
NAHI JOATEA ZUEKIN? TA ARI ELKARREKIN?
Gure ezin, gure dohai jokatzen dugu, bai!
Gure ezin, gure dohai gozatzen ere bai!